Castillo Suárez euskaltzainaren erantzuna M.A. Meaberen sarrera-hitzaldiari

Galtzearen arteaz

Alkate jauna, euskaltzainburu jauna, agintariak, euskaltzainak, jaun-andreak, eguerdi on.

Ez naiz akordatzen noiz eta non ezagutu nuen Miren Agur Meabe. Uste dut Galeusca batean izan zela, hemen bertan, Lekeition. Berehala pentsatu nuen ez ginela ongi moldatuko, ni birigarro baten moduan sentitzen nintzelako indioilar haren parean: bera handia eta koloretsua, irisatua eta elegantea, hezetasunarekiko eta hotzarekiko sentikorra; ni, ordea, bizkar uherrekoa, pasakoa eta negutarra, baina kantari ona. Berdin jarraitzen dugu: hark adjektiboak gehitzen dituen tokian, nik kendu egiten ditut; hark maionesa jartzen duen tokian, nik baztertu egiten dut; eta hark ematen dituen besarkada guztiak, nik eman gabe uzten ditut. Hala ere, beti izan dut ondoan. Beti babestu eta defendatu nau behar izan dudanean. Horregatik, niretako ohore bat da haren sarrera-hitzaldiari erantzutea, miretsi eta maite dudalako tamaina berean, niri, hori ere, asko nabaritu ez arren.

Itsasoaz aritu zaigu Miren Agur Meabe, eta niri Angel Erroren poema bat etorri zait burutara, *Marinelek gogoa itsasoan dute beti*:

Marinelek gogoa itsasoan dute beti,
bertze nahirik ez omen.
Lehorrean, belak, mesana masta,
lema faltan dituzte, mortu hezea.

Lehorrean marinelek
dakiten latin murritza
nauigare necesse est, uiuere non
delakora mugatzen da.
Gu, lehorrekook,
hainbertzeko oroiminak,

hain *saudade* mingarriak
hunkitzen gaitu
eta marinelei buruzko poemak
idazteari ekiten diogu.

Guk, lehorrekook, gure lehorrean
inola ere ez dakiguna da
marinelak, itsasoan bakarka,
zeren minak ote dauden, zeren.

Angel Erro
«Marinelek gogoa itsasoan dute beti»,
Eta harkadian ni (Elkar, 2002)

Horregatik ez naiz ausartuko itsasoaz aritzera. Angel Erro eta biok bezala poeta nafarra den Ramón Andrések dioenez, eremu idorretako idazleok irlekin egiten dugulako amets, baina ez dugu itsasoa maite. Seguruena beldurra ematen digulako. Niri behintzat, bai. Eta beldur bat beste batekin ordezkatuko dut nire erantzunerako. Denok sentitu dugulako noizbait galtzearen beldurra, izan pertsona, objektua edo tokia.

Galtzen ikastea eta agurra onartzea. Bizitzak nahi ala ez erakusten dizkigun bi gauza dira. Galerei aurre egiteko idazten du Miren Agur Meabek. Agur esateko ere bai. Negar egiten du galerei neurria hartzeko. Idatzi egiten du gaitzetik ateratzeko. Baina, batzuetan, ez dago mina arintzerik, boligrafoak ez daki bereizten zer den lehenago, negarra edo mina, idatzia edo sentitutakoa, nahigabea edo gonbitoa. Batzuetan bihozmina biderkatu eta oinaze bihurtzen da, gainera. Orduan nahiago du gorputzik eduki ez, eta testu hasikin bihurtu, esaldi mataza, ohar-kaier. Finean, idaztea galtzen eta erratzen ikastea da.

Eta zer hoberik, gin-tonic bat baino, idatziko dugunaz hitz egiteko.

Baratzean eman dugu arratsaldea,
zume zurizko besaulkietan jarrita,
kiwi-jasminen aterpean
adelfaren koreografiari begira brisan.

Hor dira artaziak, arrastelua, aitzurra,
poeta orok behar dituen lanabesak.

Uraskan hasi dira igelak beren silabak askatzen,
beti bat, beti bat, heriotzaren tenperatura bezala.
Zenbat hildako hemen, belar artean
esnatzear, gure aurreneko malkoarekin batera.

Zozoak palmondotik gorostira hegaka
nire galderari itzuri: zertaz idatzi?
Mahai gainean paratu ditut aukerak,
aperitifako zizka-mizken antzera.

Memoria atalkatuak zirrimarratzen duen nortasunaz?
Gure genealogiak hautsi beharreko markez?
Pausatutako tokietan begiak bakandutako zeinuez?
Indarkeria orotan bakoitzak itsasten dugun seiluaz?
Desamodioaz eta doluaz eta heriotzaz eta doluaz
eta damuaz eta doluaz eta doluaz eta doluaz?
Poesiaren misterioaz, zertarakoaz, muga-egunaz?

Elur-maroak ez daki ura denik.
Errautsa zer da?
Zer izan zen oroitu ezin duen hautsa.

Ixiii..., eten dit Margaretek gogoeten jitoa,
esku zimurrarekin neure eskuari helduta.
Atera ezazu beste kopa bat, *my dearest*,
zer egiten duzun, ez du larregi inporta.

Miren Agur Meabe
«Atwood andrea eta biok gin-tonic bat hartzen
Miramarren»,
Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020)

Meaberen idazkera beti dago bere bihotzaren gorabeheren eraginpean. Maite dituen baina maite ez dutenengandik urrutiratzen denean ere, bere atzetik heldu dira hitzak. Poema baten lehen zedarriak. Narrazio baten sarrera. Maitatzeari uzteko idazten du, beste batzuk maitatzen hasteko, edo bakarrik geratzeko tarte batez.

Meaberen lanak bizitzaz elikatzen dira —izan azalezkoa edo intelektuala—, baina intimoak bezain orokorrak dira, eta pertsonalak bezain unibertsalak. Bere testuak esperientziarekin lotuta daude, bizitakoa zein irakurritakoa. Irakurtzen duelako idazten du, eta badaki ezin izanen duela ezer irakurri idazten ari den horretan pentsatu gabe. Izan ere, norberaren itzaletik askatzea ezinezkoa da. Ezin da puskatu edo moldatu. Beti dago gurekin. Beti doa gurekin. Itzal hori besarkatuta idazten dugu, tarteka itolarria sentiarazten digun arren. Hala ere, beharrezkoa da denborak memoria desitxuratzea iraganari buruz hitz egin ahal izateko. Oroitzapenak mudatzen direnean has gaitezke horiei buruz idazten. Lehenago ez.

Baina, zeren arabera hautatzen ditugu gure urtebetetze-festako gonbidatuak? Alegia, gure poetika egiteko, zeren arabera aukeratzen ditugu bizi izan ditugun gertaerak, irakurri ditugun liburuak eta ezagutu ditugun pertsonak? Zeren arabera nahasten ditugu gezurrak eta egiak poema batean? Meaberen testuak ni bati buruzkoa dira beti, baina urtebetetze-festetan bezala, maiz etortzen zaizkigu burutara gonbidatu ez ditugunak ere. Etorri ez direnak. Eta hor sartzen da subjektibotasuna. Poemak memoria-ariketak baitira, finean, subjektiboak eta zehaztugabeak, baina egiantzekoak eta, beraz, eraginkorrak.

Norberaren literatur estiloa erabat loturik dago izaerari eta eskarmentuari. Meaberen idazkuntza hausnartua eta konpultsiboa da aldi berean. Beharbada horregatik ez du sekula idatzitakorik botatzen. Gorde egiten du dena, ustez zentzugabeak diren hitz horiek esanahia hartuko dutelakoan noizbait, edo beste zerbaiten erregai edo ongarri bihurtuko direlakoan. Izan ere, batzuetan oso gauza ederrak idazten ditugu, baina une horretan ez zaizkigu batere interesatzen.

Aniztasun formala da Meaberen poema-liburuen ezaugarri nabarmen bat. Bertan aurki ditzakegu epitafioak, gutunak, postalak, narrazioak, hitzaldiak, idazlanak, koplak eta haikuak. Meabe, batez ere azken urteotan, etengabe ari da poemen formarekin esperimentatzen. Horrek egiten ditu bere liburuak askotarikoak eta ustekabekoak.

Honakoa litzateke adibide garbi bat:

Lau gauza hauek kenduta
hobeto biziko nintzatekeen:
amodio batzuk,
lanbide hura,
soberako kiloak
eta idazteko grina.
SEMEAK BERENEZ
ASMATURIKO KONTRAEPITAFIOA.

Ez egin kasurik:
orain ere idazten ari da.

Miren Agur Meabe
«Epitafio bat Dorothy Parkerren estilora»,
Nola gorde errautsa kolkoan (Susa, 2020)

Gorputza modu askotara agertzen da Meaberen testuetan; areago, bera izanen da beharbada gorputzaz gehien idatzi duen euskal idazlea, emakumezkoa zein gizonezkoa. Gorputzaren atalak aipatzen ditu. Protesiak. Kristalezko begi bat. Izan ere, gorputzean islatzen da hobekien denboraren igarotzea —zahartzearen esperientziaz aritzen da Meabe bere azken lanetan—. Gorputzak bere memoria

dauka. Gorputza behar dugu komunikatzeko, gure egoera emozionala aditzera emateko. Ezin da sentsazioez hitz egin gorputza aipatu gabe.

Meabek espresuki eskatzen die hitzei gorputza aipa dezaten; areago, gorputzaren gainbehera:

Ez utzi, hitzak, lurretik urrundu nadin,
ganaduaren hatsetik, txibiaren odoletik.

Zuen orin margotuak limurtu baninduen,
xaloak zuek, nire lehen sostenaren loretxoa bezain.

Ez onetsi, hitzak, historiaz ahaztu nadin,
ideiaren logalduaz, fedearen giltzatxoaz.

Zuen hatz anizkoitzek zirri egin bazidaten luzaro,
nire bendak egosiz zuen presio-eltzean.

Ez onartu, hitzak, nire gorputza aipa ez dezadan,
bere lege aldakorrak, bere gainbehera zuhurra.

Bidarteak asko izan arren garraiatu banauzue,
kakalardoak pasteltxo ofizialaren zamaren azpian.

Ez zilegitu, hitzak, ofizio hau albora dezadan,
nahiz eta gordinak jo, nahiz eta onurak jan.

Azken obuluaren egunetik beste bat ari naiz bilakatzen.

Hitzok, ez nazazue bahitu
Renoir adeitsuaren ezein eszenatan.

Miren Agur Meabe
«Esakera hitzei»,
Nola gorde erraustsa kolkoan (Susa, 2020)

Urtebetetze-festa baten antzekoak dira Meaberen poema-liburuak. Literaturan, zientzian eta historian aitzindariak izan ziren emakumeak gonbidatu ditu. Urteetan ezagututako emakumeak dira, eta horiek testuetara ekartzea ekintza feminista da. Bestalde, badaude fikziozko emakumeak. Elkarrekin hitz egiten dute, edo irakurlearekin, eta idazlearekin ere bai batzuetan. Meaberen *alter ego*ak dira zenbaitetan; bozeramaileak besteetan. «Fosforoak» deitu ditu Meabek, pospoloek bezala argia eta beroa ematen dutelako beren jakituria eta indarrarekin. Nahiz eta horietako batzuk giza eskubideen defentsan nabarmendu ziren, Meabe ez da poeta soziala, ez da bere idatzien bidez injustiziak salatzen dituen idazlea, baina bere —edo, hobeki esan, gure— emakumeen genealogia bat osatu du, pertsonala eta, beraz, lerratua, eta lortu du ahizpatasun edo sororitatea literatura gainditzen duena.

Pospoloek, ordea, hatz-puntak erre ditzakete. Orduan komeni da hatzak txorrotako uraren azpian jartzea zizta-mina desagertu arte, eta baselina egunean bizpahiru aldiz egitea, lasaitasun-sentsazioa luzatzeko. Bai sendatze-prozesuan, bai erredura sendatu ondoren, eguzkitan egotea saihestu behar da. Azala sentibera gera daiteke asteetan, eta, beraz, eguzkitatik babesteko krema erabiltzea gomendatzen da. Baina ezinbestekoa da azal minbera izatea idatzi ahal izateko. Horrela bakarrik begira dezakegulako geure baitara.

Behaketa etengabean idazten du Meabek, zintzotasunez jokatzea eta zuzentzea gauza bera izanen balira bezala. Horiek horrela, ezin da Meaberen poesiagintzaz hitz egin minaz hitz egin gabe. Bere ustez, literaturak nahigabeak garatzeko eta pertsona hobea izateko balio du, eta idazteko —batik bat poesia idazteko— beharrezkoa da norberaren zauriak irekita edukitzea, sendatu gabe, orbaindu gabe. Nolanahi ere, haren literatura ez da sentimenduen deskribapen hutsa: emozioak gogoeta-gai bihurtzen dira. Zintzotasunez disekzionatzen du bere burua Meabek. Alabaina, nahikoa al da zintzotasuna poema ona izan dadin? Hortxe dago literariotasunaren gakoa. Nork bere burua ulertzeko saiakera izan dadin besteendako baliagarria. Hortaz, benetako bizitza aski al da benetako poesia egiteko?

Horixe *Geranioaren minipoetika* poeman plazaratu duen galdera:

Jarraitzen dut sukaldean idazten
makarroiak edo hitzak egosi bitartean.

Beste etxe batean. Geranio bat leihoan.
Zurtoinak esku bat dirudi, zerbaiten eske.

Gertaerak paper-mozkin bihurtu zaizkit.
Tentuz sailkatzen ditut, urrun galdurik begirada.
Baina zer esango dizut minaz? Zuk zer diozu?
Minaren amuak tenk egiten dit samatik.

Trantze horretan aitortzen dizut dena:
magalmina eta argidura eta bitsaren loreak.

Mezuei gantza kentzen dihardut labanaz,
alfer-kinkallatik libratu nahiz ahotsa.

Badut erritmoaren sena, xehetasunekiko joera,
irudietarako gustua, emozioaz gogoetatzeko xedea.

Zer diostazu, oro har, emaitzaz? Esadazu
benetako bizitza aski den benetako poesia egiteko.

Miren Agur Meabe
«Geranioaren minipoetika»,
Bitsa eskuetan (Susa, 2010)

Kontraesana eman dezakeen arren, galeraren ondorengoa beti da aurkikuntza edo irabazia, baina hara iristeko ezinbestekoa da hitzezko hesi bat zeharkatzea. Eta, horretarako, galeren zenbaketa doia egin behar da. Neurria hartu behar zaie tragedia txiki zein handiei.

Ni pertsonaletik *ni* kolektibora jauzi egiten du Meabek. Bere buruari buruz idazten du, baina *ni* hori beste *ni* batzuekin nahaspilatzeko baliatzen du. Errealitatearen eta fikzioaren arteko eremu lanbrotsuan dabil Meabe erosoen, autofikzioan. Izan ere, bizi duenaz idazten du, baina baita ere bizi nahiko lukeen horretaz, edo bizi izan ez duenaz; ez baita soilik bizi izan duen hori, irudikatu duen guztia ere bere bizitzaren parte bat da. Meaberen kasuan, bizitzaren eta obraren arteko batasuna hautsezina da. Poemak beti dira *ni* bati buruzkoak. Nolanahi ere, *ni* hori subjektibotasunez osatutakoa da, oroimenez hein handi batean —eta, esan

gabe doa, ez dago oroitzea baino gauza subjektiboagorik—. Halaber, askotariko *ni* bat da, plurala singularra izan ordez, beste indibidualtasun batzuen ordezkaria, beste batzuen ahotsa eta begirada dutenak. Meaberen talentuaren funtsa da, *ni* horren bitartez nahi duen efektua lortzen duela: irakurlearengana iristea.

Kontraesana eman dezakeen arren, hasierara bueltatuko naiz nire hitzaldiari bukaera emateko. Galtzearen arteaz egin zuen Elizabeth Bishopek poema zoragarrira, *Artea*:

Galtzearen artea ez da zaila ikasten;
hainbeste dira galdu nahian diruditen gauzak
galtzean ez dakartela inongo hondamendirik.

Gal ezazu zerbait egunero. Onartu ezazu
ateetako giltzak galtzeak sortutako nahasmendua, alferrik galdutako mementoak.
Galtzearen artea ez da zaila ikasten.

Praktika ezazu orduan, eta galdu gehiago eta azkarrago:
lekuak eta izenak, eta egin asmo zenituen bidaiak oro.
Ezerk ez du hondamendia ekarriko.

Amaren erlojua galdu nuen. Eta hara!, ene arimako
hiru etxeetako azkena edo azken-aurrekoa desagertu egin da.
Galtzearen artea ez da zaila ikasten.
Bi hiri xarmagarri galdu nituen. Eta zabalagoak diren
zenbait eremu: bi ibai, kontinente bat.
Faltan ditut, baina ez zen hondamendirik izan.

Zu zeu galtzean ere —keinu burlatia, hainbeste maite dudana—
ez nuen gezurrik esan behar izan.
Bistan da: galtzearen artea ez da zaila ikasten
hondamendiaren traza izan dezakeen arren.

Elizabeth Bishop
«Artea».
Itzulpena Jon Benitorena,
Castillo Suárezen *Bala hutsako* (Susa, 2020) liburuan
argitaratua.

Ez digute galtzen irakatsi. Galera zein heriotza —bizitzan galerarik handiena eta saihetsezina den hori— ezkutatzen ahalegintzen den munduan bizi gara. Hala ere, gauza asko galdu ditugu. Ohitu gara, gero eta gauza gehiago eta bizkorrago galtzen; Bishop bezala, bizitzari ironiaz eta distantziaz erreparatzen.

Baina dena ez da galera. Euskaltzaindiak euskaltzain berri bat irabazi du, hitzak maite dituena eta lanari beldurrik ez diona. Ongi etorri Euskaltzaindira. Literaturaren eremuan dena dugu eginkizun eta egingarri.

Castillo Suárez García
2023ko apirilaren 22an
Lekeition, Andre Mariaren Jasokundearen basilikan